



fixa poliziá

Izena: Imanol Oruemazaga Baseta. Ikerketa egina daukat eta berez Gerediaga-Orue-Matzaga litzateke.

Non eta noiz jaioa: Berrizen, 1931ko urriaren 28an.

Noiz etorri zinen

Ondarroara? 1956an, 24 urte gaz, organista.

Ezizenik: Berrizen ez daukagu horrelako ohiturarik. Baina Ondarroan oraindik *"Jaun Imanol"* deitzen didate batzuk.

Kaletarra edo baserrikoa?

Gu kaletik baserrira joandakoa gara. Aita pilotaria izandakoa eta ama, baserriko alaba. Biak kalean bizi ziren eta bizitzako gorabeherengatik baserrira joan behar izan zuten 1945ean. Aitari gertatu zitzaion goldea zer zen ez jakitetik lurak idiekin goldatu behar izatera igarotzea.

Egoera zibila: Epailaren aurrean ezkontuta.

Zaletasunik: Historia eta musika.

Irakurtzeko liburu bat?

Historiako gauzak irakurtzen ditut gehien bat.

Musikan, zure gustukorik?

Kantari moduan zuberotarrak gustatzen zaizkit asko. Gero musika klasikoa entzuten dut sarri.

Imanol Oruemazaga Baseta

"Beti ahalegindu naiz herriko egoerari erantzuten"

Arduraduna eta testuak: Joserra Egiluz
Argazkiak: Imanol Oruemazaga • Bitxore Laka • Klik-klak • Bolo-Bolo



1958 inguruan, Andra Mari Jaiak, Gotzon Aulestiagaz, elizatik beheara.

Bolo-boloren lehen zenbaktik genuen Imanol Oruemazaga elkarrizketatzeko gogoa. Eragin handiko pertsona izan da Ondarroan herrira 24 urte zituela iritsi zenetik. Abade langilea, organista, koruko zuzendaria, ikastolako langilea, Kresala Elkartearen sortzaileetarikoa, "Ondarroako Historia Zaleak" taldeko partaide eta sortzaileetarikoa... Garai batean abade moduan hartu zituen erabakiek eragin handia izan zuten herrian eta gaur ere herrian adin batetik gorakoek ondo gogoratzen dute portuan lanean hasi zen Imanol hura edota herriko historia eta ondarrutarren memoria berreskuratzen diharduen Imanol hau. Ez da laudorio eta omenaldi zale, nahiago du ixilean lan egin. Oraingoan ixiltasun horretatik atera nahi izan dugu eta mikroaren aurrean jarri.

Lehenengo eta behin, Imanol, noiz eta zelan etorri zinen Ondarroara?

1956an, 24 urte neuzkala etorri nintzen. Zelan etorri nintzen? Historia luzetxoa da. Gasteizko Seminarioan organista izan nintzen hainbat urtetan. Casimiro Morcillo zegoen orduan obispo. Eta urtero etortzen zen Seminarioa, urte horretan abade egiteko zirenekin hitz egiteko. Abade egin aurreko azken bisitaldian abade egin eta gero bakoitzak zer nahi zuen ere galdetzeko ohitura zeukan. Ordurako banekien Ondarroan organista eskabidea zegoela, baina ni nekatuta nengoen organista izateaz eta langile herri batera joan nahi nuela erantzun nion. "Te mandaré" esan zidan. Basauriko San Migelera bidali ninduen. Eta Casimiro Morcillok Bilbon jarraitu izan balu ni ez nintzatekeen Ondarroara etorriko. Baina hurrengo urtean Zaragozako artzapezpi-ku izendatu zuten eta Pablo Gurrupide etorri zen Bilbora obispo. Bilboko obispo berri hau eta "D. Segundo" Egaña, ondarrutar abadea eta abeslaria oso ezagunak ziren, elkarrekin egon ziren-eta urte askotan Iruñeako katedralean, bata kanonigo, eta "D. Segundo" abeslari. Eta hortik lortu zuten ni Ondarroara ekartzea.

Ordurako ezaguna zenuen Ondarroa?

Bai. Kuriositate moduan esango dizut Benantzik, nire jaiotetxearen alboan "krixada" zegoen Ondarroako emakume batek, eraman ninduela ni bataiatzera.

Gogoan duzu hona lanera etorri zine-neko garai hura?

Gauza bik harritu ninduten. Bata jendea-

ren irekitasuna izan zen. Jendea oso irekia zen eta beste herritar bat moduan tratatzen ninduen. Baita emakumeek ere, nahiz eta ni abadea izan.

Gogoratzen naiz ni hona etorri eta handik urte gutxira nire herriko kintoak etorri zirela ni bisitatzera. Eta neskek zelan tratatzen ninduten ikusi zutenean, harrituta geratu ziren. Hortik ulertu ditut geroago egin izan diren ondarrutarren estereotipo batzuk, emakumeei buruzkoak eta. Eta denbora pixka bat bertan emanda konturatzeko zara kostaldeko emakumeen izaera oso irekia dela. Izaera hori niretzat orduan kontraste handikoa izan zen.

Eta harritu zintuen bestea?

Bigarren gorabehera harritu ninduen herrian mogida politiko handia zegoela. Abertzaletasun izpiritua oso indartsua zela, baina eskumako talde batek herria eta eliza kontrolatuta zeuzkala. Parrokian eragin handia zuen talde horrek. Dato bat emateko, igandetako mezatan (latinez ematen ziren orduan) euskarazko sermoia entzutea nahi bazenuen, goizeko orduetan joan behar nahi ta ez. Hamarretako meza nagusiaren ostean (hemen sermoia gaztelaraz eta euskaraz egiten zuen parrokoak berak), parrokian zegoen meza bakarrean gaztelara hutsez egiten zen sermoia. Aztarrenak aztertzen hasten bazara, konturatzeko zara hemen herri bat dagoela euskalduna eta politika

***"Ni herrira etorri nintzenean
udaletxeko agintariei sartu eta
irtetean Espainiako himnoa
jotzen zitzaien elizan"***





"Jendearen irekitasunak eta, bestetik, herrian abertzaletasun izpiritua oso indartsua izanik, eskumako talde batek herria eta eliza kontrolatuta zeuzkala ikusteak harritu ninduten"

arloan asko sufritu izan duena. Francoren indarrak urriaren 4an sartu ziren herrian eta martxoan alde egin zuten. Bitartean falangistak, erreketek eta Francoren aldeko gainontzekoak hemen egon ziren, herriko jaun eta jabe. Herriko gehienak, gizonezkoak batez ere, "aurrera joanda zeuden gorriekin".

Udaletxean agiri bat dago, non herriko agintari frankistek, 1937ko aurrekontuak egiteko orduan, aitortzen dute ezin zutela aurrekontuen prestakuntza amaitu herri-tarren erdia baino gehiago herri-rik kanpo zegoelako. Eta hainbeste jende herri-rik kanpo zegoenez, familia batzuei presioa egin zieten kanpoan zeudenak herrira etor zitezen. Ez zen inor herrira itzuli, eta ehun eta piku herritar, emakumezkoak euren umetxoekin, herri-rik Lekeitiora bota zituzten, oinez, 1937ko otsailean. Gertaera hauek, eta gerra hartako beste batzuek asko markatu zuten herri hau.

Giro horren ondorioak bizi izan zenituen herrira etorritakoan?

Orduko giroa konprenitzeko esango dizut udaletxeko agintariei elizara etortzen zirenean, sartukeran eta irteeran Espainiako himnoa jotzen zitzaizela. Pentsa, meza nagusia entzutera etorri, eta herriko gehienak abertzaleak izanda, elizan ere horixe entzun behar. Nik orduan erabakia



1958ko ekaina. GAZTEEN EGUNA: kalejira, Nodoa, banda eta korrida frontoian.

1958ko ekaina. GAZTEEN EGUNA: Jimmy torero jantzia. Atzean Juanito Balentziaga kapotearekin.

1958ko ekaina. GAZTEEN EGUNA: "La Banda de los casiguapos". Monjetako bidegurutza aligatzen



karenikka



1958an. Elizako koroa zuzentzen.



1958ko abuztuaren 2a. Elixoepan.



1960ko azaroaren 19an koroan.

hartu nuen, nahiz eta udaletxeko behargina izan -udaletxeak ordaintzen zuen nire soldata-, udaletxeok meza politiko bat antolatzen bazuten, nik Espainiako himnoa joko niela, baina meza arruntetan ez. Herriak ulertu egin zuen, baina agintariek ez, eta giro gogorra izan zen.

Berehala sartu zinen herriko giroan.

Organista nintzenez gero, organista izateaz gain parrokiako korua ere zuzentzen nuen. Gizonezkoek eta tipleek osatzen zuten elizako korua. Gainera bazegoen aurreko urtean D. Segundo Egaña berak sortutako tipleen eskolania

bat "Antiguako Ama Ume Abeslariak" zeritzona. Hauen ardura ere hartu nuen. Egin genuen lehenengo ekintza 1957ko Santa Ageda bezperan, galduta zegoen ohitura, tipleekin hiru ahotsez herrian zehar kantatzera ateratzea izan zen. 10 bat lagunek osatutako "Boga-Boga" "rondallak" lagundu zigen. Horrek izugarrizko eragina izan zuen

"Gerrako gertaerek asko markatu dute herri hau. 1937ko otsailean Francoren aldekoek ehun eta piku herritar bota zituzten herritik"

"Errepublikaren ostean Ondarroan jendaurrean emandako lehen euskarazko antzerki-lana 1957an eman zen: "Seaska inguruan"

herrian.

1957. urte berean, Erramu Igandean, iluntzean, Aste Santuko pregoia egin genuen parrokiari bertan elizako koruarekin. Pregoa bera esateko, Jose Luis Ansorena, abadea eta nire irakasle izana ekarri genuen, orainsu Donostian omendu duten Ansorena ("Mirri" paila-zoa) musikariaren osaba. Pulpitara igo eta, abestien tartean, pulpitutik bertsoak kantatu zituen. Ondarroako elizan kantatutako lehen bertsoak, agian. Izugarria izan zen!

Herrian zegoen giroa ezagutzeko anekdotatxo bat kontatuko dizut. Aste Santu horretako pregoia kantatzeko orduan, kanta batzuk neskekin prestatu genituen. Horretarako Jose Markuerkiagak zuzentzen zuen "Kresala" abesbatza ere bazegoen herrian. Jose nire lagun minari ez diot inoiz behar adina eskertuko musika arloan urte askotan eskaini didan laguntza paregabea! "Kresala" koru hau emakumezko eta gizonezkoek osatzen zuten. Baina elizan elkarrekin abesterik ez zeukaten. Pentsa, Aste Santuko pregoi hura ematea pentsatu genuenean, Bilboraino joan behar izan nuen neskek ere elizako kontzertu hartan kantatzeko baimen bila. Orduko bikario orokorrak, León María Martínezek, horretarako baimenik ez zela behar erantzun zidan. Baina, nik erre eta erre, azkenean agiri batekin itzuli nintzen herrira. Bestela, Don Pedro parrokoak ez zigen pregoi hura elizan ematen utziko!

Hain giro gogorra eta estua?

1957ko Aste Santuko gertaera bat kontatuko dizut. Orduan gizonezkoak eta emakumezkoak batera egotea ezinezkoa zen. Elizako prozesioak ere egiten ziren gizonezkoak aurretik, gero irudiak, abade eta herriko agintariak atzetik, eta emakumeak azken.

Pentsatu genuen Bariku Sainduan prozesioa herrian zehar egiten zenez, korua bera hiru-lau tokitan gelditu eta aurreko igandean elizako kontzertuan abestutako kanta batzuk kantatzea. Alameda aurreko eskaileretan abestu, eta neskei esan nien prozesioan koruko gainerako partaideekin jartzeko, gero berriro batera kantatu behar zutelako

"Herrian musikarako oinarri aberatsa eta euskara egarri izugarria zegoen. Antzerkiaren bitartez arnasa hartu zuen Ondarroak"

Kalekutzean. Gure parrokoak neskak gizonekin batera prozesioan ikusi zituenean, hantxe etorri zen, elizako kapa eta guzti, haserretuta, "neskak kanpora!" esanez, eta koruko neska guztiak prozesiotik bota egin zituen. 1957a zen!

Eta musikatik antzerkira...


Augustin Zubikaraik prestatuta zeukan "Seaska inguruan" lana, Jesusen jaiotzako irudiekin. Aurreko urtean Donostian saria eman zioten lan horri eta Augustin Zubikairi esan nion ea zergatik ez genuen prestatzen herrian antzezteko. Hurrengo Gabonetarako (1957) prestatu genuen. Jende askok hartu zuen parte.

Garai hartan, baimena eskatu behar zitzairen aurretik agintariei. Bizkaiko Gobernari Zibilak baimena eman zigunean, agindu zigun euskarazko antzezlan izanik, erdarazko beste antzeztan bat ere sartu behar genuela jaialdian. Eta "Villancico español" antzeztu behar izan genuen "Alameda" antzokian "Seaska inguruan" euskarazkoarekin batera. Errepublikak garaia ostean Ondarroan jendaurrean emandako lehen euskarazko antzerki-lana horrelaxe eman zen. Ondarroatik Eibar, Elgoibar, Bilbora... atera zen.

Hurrengo urterako "Jaunaren



1958ko apirilaren 4an, Beheko Zinean. "Jaunaren Bideetan" antzezlan.



Bideetan" antzezlan prestatu genuen, Jesusen pasioari buruzkoa. Eta hurrengo urtean "Kresalean" egin genuen, Ondarroako bizimoduaz Txomin Agirre ondarrutar idazleak eginiko "Kresala" eleberria antzezteko moduan Augustin Zubikaraik berak prestatua.

Musikadun antzeztan guzti horiek Augustin Zubikaraik berak prestatu zituen, eta Don Pedro parrokoaren lagun handia zenez, horrek asko lagundu zigun aurrera egiteko. Geroago, Jose Maria Altuna azpeitiar musikoa "Mariñelak" ere eskaini genuen

Urtetan ibili ginen antzerki lanak antzeztan eta zabaltzen. Euskal Herriko

antzoki gehienetara iritsi ginen (Gasteizko "Printzipal"era, Donostiako "Victoria Eugenia"ra, Bilboko "Arriaga"ra...). Guztira 130 bat pertsona mugitzen ginen, bi autobus bete gehi norberaren kotxean joaten zirenak.

Herrian musikarako oinarri aberatsa zegoen eta, bestetik, euskara egarri izugarria. Aurkezten genituen antzeztan guztietan, garrantzi handia zeukaten musika eta abeslariak, eta musikadun antzeztan hauen bitartez, arnasa hartu zuen Ondarroak berak, eta Euskal Herriko beste herri batzuk ere.

Antzerkiaren inguruko hura herri mugimendu bat izan zen. Hasieran GAO ("Grupos Artísticos Ondarroa") esaten genion mugimendu horri. Oinarrian herrian zeuden inketudeak batu ziren (orfeoia, elizako korua, rondailla, tipleak...). Eta Euskal Herrian zehar hainbat tokitan ibili ondoren taldea erakunde moduan legeztatu behar izatea etorri zen. Hortik etorri zen "Kresala Kultur Elkarte", 1964an, Txomin Agirreren 100 urte betetzean. Lehenagoko jende berbera zen, baina izena eta estatutu legalekin. Horrek aurrera jarraitu zuen

1960 inguruan. Tipleen korua.





"Kresala Ondarroako euskara eta euskal kulturaren habia izan zen. Era eta ideologia guztietako pertsonak elkartzen ziren euskararen aldeko mugimendu horretan"

eta oraindik ere jarraitu egiten du. Garai batean Kresala izan zen Ondarroako euskara eta euskal kulturaren habia. Era guztietako pertsonak elkartzen ziren euskararen aldeko mugimendu horretan, ideologia ezberdinetakoak. Zabal-zabala izan zen. Hortik sortuko ziren geroago txistulari eta dantza taldea, gitarrajoleak, euskara ikastaroak, euskarazko hitzaldiak, zine foruma...

Zure bizitzan beste aro garrantzitsu bat Kamiñazpikoa izan da.

Ni 1956an etorri nintzen, eta musika arloan lan handia egin genuen. Baina banuen barruan lehenagoko garra hura, San Migelera eraman ninduen. Ordurako Kamiñazpiko etxe gorriak eginda zeuden, "Genaro Riestra" izenekoak, Bizkaiko gobernadore zibilaren omenez. Eta ni etorri eta gero hasi ziren egiten Kofradiak bultzatutako etxe zuriak. Etxe merkeak ziren, arrantzaletzat eginak. Jendea hara bizi izatera joaten hasi zen. Eta behin parrokoarengana joan nintzen eta Kamiñazpiko auzoan arduraren bat hartuko nukeela adierazi nion, elizak auzo horretan presentzia izan zezan. Don Pedrok ez zidan behin ere "Imanol" deitu, ezta "Manuel" ere, orduan beste Manuel bat zegoelako Ondarroan. Orduan "organistero" deitzen zidan. Kamiñazpikoa aipatu nionean ez zidan ezetzik esan ere. Ordurako auzoan bazegoen eliza bat eraikitzeo asmorik, baita jendea dirua batzen hasita ere. Behin Eduardo Marino siziliarrak Bilboko Otxarkoagara lagundu ninduen eta hango eskola aurrefabrikatuak ikusi genituenean hemen antzeko zerbait eraikitzea proposatu genion parrokoari.

Ordurako ni koadjutore edo laguntzaile izendatu ninduten. 1967an heldu nintzen Kamiñazpira. Niretzat oso esperientzia polita izan zen. Guk nahi genuen elizaren ikuspegia plasmatzea lortu genuen. Ordurako elizaren pen-

tsaera guztiz hierarkikoa zen eta horren aldean guk kristau herria bultzatu genuen. Eliz mugimendu polita sortu zen, baina jendearengan oinarrituta, ez abadeengan. Guraso mugimendu garrantzitsu bat egon zen, katekesia beste era batera ematen genuen. Eliza bera ere "centro social" bihurtu zen, egun osoan martxan zebile-na: umeentzako eskolak uda garaian, bilerak, gaueko "eskola soziala" k... Eskola sozial honetako irakasle izan zen garai batean Abel Muniategi, geroago Justizia sailburuordea izango zena. "Alkar-laguntza" edo "Caritas" ere hortxe sortu zen, elizara joaten ez zen gizon batek gidatua. Elizako gaiei dagokionez, mezan ez zen atabakarik edo zestillarik pasatzen. Ezta meza dirurik kobratzen ere. Otzara bat ipintzen zen Elizako sarreraren bakoitzak bere borondate utz zezan. Orduan Estatuak nolabaiteko soldata ordaintzen zien abadeei. Eta nik Estatutik jasotzen nuena, zuzenean Kamiñazpiko elizako kuxara joaten zen. Elizkutxa



1964ko ekainaren 14an. Euskal Dantzen alardea. Txomin Agirrerren 100. urtebetetzea.

honen eta eleizako arazo administrati-boen ardura auzotar batzuek zerama-ten.

Kamiñazpikoa oso mugimendu zabala izan zen, mugimenduan partehartzen zuen jendea elizara joaten zen edo ez begiratu gabe. Elizaren beste ikuspegi bat landu genuen Kamiñazpin, goitik beherakoa izan beharrean, "Denok gara Eliza!" aldarrikatzen zuena.


Orduan lanean ere ibili zinen portuan...

Hori beste istorio bat izan zen. Pentsa, Ondarroan, abade bat beharrean! Kamiñazpiko giro horren barruan etorri

"Kamiñazpikoa oso mugimendu zabala izan zen, bertan parte hartzen zuen jendea elizara joaten zen edo ez begiratu gabe. Elizaren beste ikuspegi bat landu genuen"



1967-68 inguruan. Mitxelenean beharrean



"Ikastola herritarrek egindako mugimendua izan zen. Guraso eta laguntzailez osotutako sare zabala"

zen ni beharrera joatea. Goiz partean portuko lantegira joaten nintzen eta arratsaldean Kamiñazpiko auzoari eskaintzen nion. Pintxe moduan sartu nintzen "Mitxel" eneko tailerrean 1967. urtean. Eta hor denetik egin nuen. Oso pozik ibili nintzen abade-langile moduan lanean, orduko langile giroa oso aberatsa zelako. Hasieran goizetan bakarrik joaten nintzen lantegira, baina gero, Kamiñazpikoa amaitu zenean, goiz eta arratsaldean.

Lantegiko gure borroka nagusia nominak ondo ipintzea izan zen. Hori nagusiak ez zuen ondo ulertu eta 1975ean beste tailer txikiago batera ekarri ninduen, hasieran beste birekin eta gero bakarrik. "Isla de Yeu" izena jarri zioten tailer horri, garai hartan zigor moduan errefuxiatu ugari irla horretara bidali zituztelako.

Azken aldian, piezei uharra kentzen ematen nuen egun osoa! Harik eta lantegitik urten 1979. urtean. Pena handiz alde egin neban tailer hartatik.. baina ez neukan beste aukerarik!

Hortik ikastolara joan zinen...

Ikastolaren mugimendua "Kresala" tik zetorren. Eta ikastola bera 1967. urtean sortu zen Antzosolon. Ondarroako ume ia denak euskaldunak izan arren, euren hezkuntza osoa gazteleraz jaso beharrean aurkitzen ziren herriko eskoletan. Eta hori nola irentsi Ondarroa bezain herri euskaldun batek! Ni ikastolan sartu nintzenean zubi zaharraren alboko eraikinean zegoen kokatua, "Plaza Gain" ean. Bertan idazkari moduan lanean zebilenak ihes egin behar izan zuenez, plaza hori lehiaketara ateratzen zen. Hamar bat pertsona aurkeztu ginen eta azterketa gaingitu ondoren neu aukeratu ninduten. 1979an sartu nintzen eta ikastola zaharretik berrira igarotzea egokitu zitzaidan. Maiatzean hasi nintzen beharrean eta udan inauguratu zen ikastola berria Kamiñazpin.

Nola oroitzen dituzu ikastolako urteak?

Urte ederrak izan ziren. Ikastola herritarrek egindako mugimendua izan zen. Herri mugimendu hori aberatsa eta zabala izan zen. Ez zen nahitaezkoa gurasoa izatea. Ikastolaren sorreran ere jende asko egon zen, ikastolako gurasoa izan barik, asko lagundu zuena. Jende asko dago eskertu beharrekoa. Alde batetik seme-alabaren bat ikastolan zuten gurasoak zeuden eta, bestetik, laguntzaileak. Lehenengoek hile-



IKERLAKA



1975eko ekainaren 22an, Gorozikan. Adrian Osa, Errapel Garalde, Edur Zabala, Imanol Atxaga, Lurdes Goigana eta Imanol Oruamazaga.

ro kuota bat ordaintzen zuten, baina laguntzaile sare handia eta zabala ere bazegoen, hilean diruren bat eman edo herrian dirua biltzen ibiltzen zirenak. Niretzat ikastolaren mugimendu hori, oso inportantea izan zen, herritarrek sortutakoa baitzen. Eta herrian oinarritua. Hortik datorkio Herri Ikastola deitua ere.

Gomuta aipagarriren bat?

Gomuta asko. Onak eta ez hain onak ere tartean. Baina bat aipatzekotan, udalekuak aipatuko nituzke. Ikastolakoek eurek antolatzen zituzten udalekuak, gero ikastolen mugimenduak beren gain hartu zituenak. 1980-1981an, esaterako, Zuberoara joan ginen hango ikastetxe batera eta 15 eguneko bi txanda egin genituen.

Udalekuko arduradun eta laguntzaile guztiak (sukaldariak, begiraleak...), denak herritarrek izan ziren. Harreman estu eta onak ere egin genituen hangoekin. Behin 3 autobus joan ginen Ondarroatik.

Ikastolako beharra amaituta, erretiratzeko sasoia etorri zitzaizun. Orain zertan zabilta?

Beti izan dut zaletasun moduan herriko datuak batzea. Hortik etorri zen herrian historiazale talde bat eratzea. Nire bizitzan beste konstante bat izan da hori, gauzak bakarka egin beharrean taldeka egitea. Eta Augustin Zubikarainen esperientzia zegoen hor, zer pentsa eman izan didana. Augustin eta biok aspaldiko lagunak gara, nahiz eta ideologiko ki diferentziak izan. Beti eduki izan

dugu harreman ona, "Kresala"ren denboretan Euskal Herriko bideetan barrena elkarrekin ordu asko eman genituen. Augustinek lan polita egin du Ondarroan, besteak beste "Ondarroa" urtekaria. Eta Augustin bera geratu den moduan geratuta, zer edo zer egin behar zela pentsatu nuen. Baina beti talde lanean. Eta herrian historia ikasi edo mundu horretan ibilitakoei eskutitz bana bidali genien. Batzarrak egiten hasi eta azkenean 10 laguneko talde finkoa eratu dugu. Orain kultur elkarte moduan legeztatzekotan gabilta.

Beste datu bat ere badago. Udalak herriko zaharren oroimena gordetzeko beka bat sortu zuen 2000.ean edo dirulaguntzaren bat eman, behintzat. Nik hor argazkien arloko kezka handia nuen. Etxeetan argazki zahar asko dago, baina argazki horiekin beti berdina gertatzen da: argazkian norbera agertzen denean, argazkia gorde egiten da altxor bat moduan; seme-alabek aita edo ama agertzen delako argazkia gordetzen jarraitzen dute; baina gero ilobek bota egiten dituzte.

Zeintzuk dira talde horretan dituzuen asmoak?

"Ondarroa" urtekariarekin jarraitzeaz gain, beste proiektu batzuk ere baditugu. Hauetariko bat, gure herriko historia egin duten herritar eta elkarteak datuak eskuratu eta gordetzea da. Ondarroako Historiaren egileak ondarrutar guztiok gara, herritar xume eta arruntenok ere bai, nahiz eta besterik uste izan askotan. Taldearen eskuetara iritsi zaigu, esaterako, Urgain baxurako kooperatibako artxiboa, 1964tik orain-tsu artekoa. Botatzeko zegoen eta txiripaz enteratu ginen horretaz. Horren antzera dokumentu zaharrak daude, argazki zaharrak... Udaleko artxiboa bera ere, gerra arterainokoa Bilbon dago, eta gure asmoa ikertzera haraino joan beharrean han dagoena mikrofil-



1979ko apirilaren 27an, Mitxeleneko lantegia inundatuta. Ura barruraino sartzen zen

"Une historiko batean erabaki bat hartu behar izan nuen: gotzainak agintzen zidana bete eta burua makurtuta joan, edo herriko problematika bati erantzuten saiatu"



2001eko abenduan, Ondarroako Historia Zaleak taldea-OHZ. Gotzon Iparragirre, Rosana Goikoetxea, Argia Garrido, Imanol Oruamazaga, Yolanda Urrosolo eta Angel Ituarte.

matu eta hemen kopia bat edukitzea da. Azken batean herriko artxiboa nahi dugu sortu eta herritarrentzat erabilgarri egin.

Atzera begiratuta, eta hemen bizi dituzunak bizi izanda, berriro etorriko zinateke Ondarroara organista moduan?

Bai, dudarik gabe. Ondarroan emandako urteek asko markatu naute. Ni naizena herri honek egin nau. Ni beti ahalegindu izan naiz herriaren eskariari, herriko egoerari erantzuten. Orain ere nagoen moduan gelditu banaiz ere, abadetzatik kanpo, horrexegatik izan da, herriko egoera bati erantzuteagatik edo erantzuten ahalegintzeagatik, behintzat. Une historiko batean erabaki bat hartu behar izan nuen: edo gotzainak agintzen zidana bete eta burua makurtuta joan, edo herriko problematika bati erantzuten saiatu.

Nik orduan nire erantzuna eman nion arazoari, 1960-1975eko garai hartako egoera latza bezain joriari nire kontzientzian ikusten nuen erantzuna, alegia. Gotzain baten "Ni vencedores ni vencidos" esaldi hura inola ere ez nuen irentsi. Azken batean eliza ulertereko eta bizitzeko bi era oso ezberdin zeuden jokoan, elkarren aurrez-aurre. Eta funtsezko arazo horren aurrean inolako argibiderik eman gabe, abade ekipo bat bidali zuen Ondarroara. Ikuspegi oso politikotik aukeratutako abade taldea, gainera.

Batzuek uste dute, oraindik ere, ordukoa Don Pedoren eta nire arteko "borroka", pertsonala izan zela. Baina eztabaida hura erabat doktrinala besterik ez zen izan. Une hartan elizak nola jokatu behar zuen izan zen, hain zuzen ere, eztabaidaren muina. Nik ez neukan ezer Don Pedoren kontra.

Bizitzako azken denboretan gaixorik zegoela klinikara bisitatzera joan nintzaion eta poz itzela hartu zuen ni han ikustean. Enterrua izan zenean ere, Antiguaraino joan nintzen gorpua laguntzera. Hantxe zeuden garaiko hartako Ondarroako karlista-frankista peto-petoak. Eta Imanol hantxe, euren erdi-erdian. Ondoren, goitik behera gentozela, batek esan zidan orduantxe ulertu zuela Don Pedoren eta nire arteko borroka ez zela inondik inora ere pertsonala izan, arazoa guztiz bestelakoa zela. Nik neuk, izan ere, Don Pedro parrokoaren kontra ez neukan ezer pertsonalki.

Lehen esan dudan moduan, Ondarroari zor diot neurri handi batean ni neu naizena. Ondarroako herriari, batzuei eta besteiei, zinez eskertzen diet ni neu izateko 45 urtean eman didaten guztia!

Bizitzako pozak eta ilusio galduak?

45 urte daramatzat Ondarroan eta denetarik bizi izan dut. Batzuetan hanka-sartzeak izan ditut, baina horiek bizitzako gorabeherak dira. Baina esperientzia pozgarria daukat, garai batean nik zergatik ez dakidala agurra kendu zidatenak, gero eta jende gehiagok agurtzen nau. Hor buelta bat ikusten dut. Ni neu betiko tokian nago. Azken batean politikan aukera bat hartu nuen eta normala da aldekoak eta kontrakoak izatea, baina herrian gauza batzuk

"Herriko artxiboa nahi dugu sortu eta herritarrentzat erabilgarri egin"

badaude neuk bultzatutako moduan, nik bultzatu barik. 1964. urteko baxurako huelga entzutetsu baten errua, esaterako, Kepa Iturrarani eta bioi bota ziguten, eta oraindik batzuk badaude mamu horri eusten diotenak. Horrek mina ematen dit, norberak egin ez dituen gauzen errua norberari leporatzea.

Ondarroak, trukean, zer eman dizu?

Horixe, neu naizena. Disgustu asko ere eduki ditut hemen, baina hori baino gehiago eman dit: neu izaten, naizena izaten lagundu dit.

BOLO-BOLO batean elkarriketatu bati Ondarroan ea nori eskainiko liokeen herriko kale bat galdetu genionean "Imanol" erantzun zigun. Zuk nori eskainiko zenioke kale hori?

Ez naiz ni horren zale. Pertsonalizatzea oso gezurtia deritzat. Pertsona batek asko egin badu ere, aukera bat izan duelako, gizarteak posibilitate batzuk eman dizkiolako izan da.



2002ko urtarrilaren 25ean, Udaltxean, Ondarroa 2001 urtekaria aurkezten.



kaireniketa

**Itsasoa**

Nire atsedena izan da. Ondarroara etorri berria nintzela, sarri joaten nintzen afaldu ostean itsas ondotik paseatzera, itsasoari begira. Niretzat deskubrimendua izan zen.

Arrantza

Arrantzaleen bizimoduarekiko kezka ere badut. Lehenengo eta behin arrasteko arrantza eta baxurakoa bereiztu behar dira. Arrastekoa etxetik urrun hainbeste denboran egon beharra izateaz gain, beharra bera ere gogorra eta arriskutsua da, eta gutxi irabazten da. Arrastean gertatzen dena barkaezina dela uste dut. Eta honetan ondarrutar denak gara errudun, neurri batean behintzat, ezikusiarena egiten baitugu. Ba ote dago beste lan eremurik langile eta jabeak partillara joateko konpromisua hartu eta gero, arrantzua bera jabeak berak bakarrik saltzea... sal-

menta horretan langileen ordezkari-rik egon gabe?

Kartzela

Ezagutu egin dut, baina epe laburrean. Lehen aldiz, Guardia Zibilen mezetarako Pilarika egunean, elizan jarritako Espainiako bandera hileta baterako tapatu eragin nuelako jarri zidaten multa ez ordaintzeagatik. Gero hurrengo urtean prozesatuta egon nintzen "propaganda y asociación ilegal" karguengatik, eta hor denbora luzerako egoteko arriskua eduki nuen. Argi daukat kartzela ez dela errehabilitatzeko, pertsona barrutik apurtzeko baino. Guk geuk kartzelan ondo pasatu genuen, Zamorako abade-kartzelan abade lagunak baikin denok. Nire kartzela sufritu zuena nire ama izan zen eta konbentzitura nago benetako kartzela gurasoek sufritzen dutela, orduan eta orain.

Konpromisoa

Ez nituzke hainbeste bereiziko konpromiso politiko, sozial eta erlijiosoa. Niretzat konpromisoa pertsona bakoitzak inguruan bizi duen problematikari erantzun bat ematen saiatzea da. "Konpromiso" hitza ez zait gustatzen, "erantzutea" gehiago gustatzen zait.

Eliza

Hor gauza asko edukiko nituzke esateko. Zer irabazi eta zer galdu asko daukan sistema da. Oraingo Elizak Jesusen Elizarekin zerikusi gutxi dauka.

Fedea

Fedea eta itxaropena txanpon baten bi aldeak dira niretzat. Zerk ematen dizun

eguneroko arazoetan aurrera egiteko indarra, horri deitzen diot nik fedea. Gizarte osoari begira, behartsuen alde batez ere planteamendu orokor bat egiteko indarra ematen dizuna, hori da niretzat fedea. Zerbaiti erantzuten badiozu zu ondo gelditzeko, edo hortik zerbait lortzeko, hori ez da fedea, interesa baino.

Herria

"Herria" barik, nik "herritarrak" esango nuke. Ni lotsa handia diet herritarrei, pertsona bakoitza mundu bat dela ikusten dudalako, eta pertsonok egiten dugu herri bat. Hor ez dute balio formula orokorrek. Pertsona bakoitza bere izaera eta arazoekin hartu behar dugu kontuan.

Elkartasuna

Premian dagoen pertsona bati esku bat botatzea baino, daukazuna erdi banatzea. Gaur egun "aukera berdintasuna" nahi bat da, baina zoritxarrez gure gizarte kapitalista honetan ez da hori, "zenbat daukazun, horrenbeste zara" baino. Eta hori aurrera doa beheko jendea zapaldu-ta.

Politikak zer eman dizu?

Batetik herriko jauntxoek politika mundua ezagutu dut eta, bestetik, Franco hil eta gero sortutako mundua: alderdi politikoak, hauteskundeak... Lehengoari dagokionez, argi zegoen pertsona batzuen interesen zerbitzurako sistema zela; besteari buruz, helburuak eta ametsak ondo daude, denok parte hartzea, herria alkatea izatea... baina praktikan gero eta gehiago ikusten dut partidu politikoak interes konkretu batzuen menpeko bihurtzen doazela, eta hor ezkerra ere ez dut alde batera uzten. Urteak daramatzat esaten "Zer falta zaigu? Autokritika! Autokritika berba bera ere ahaztu egin zaigu."

